

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

162/2020 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzen deialdia onesten duena. 2021, 2022 eta 2023ko kanpainak

Ikusirik Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen abenduaren 17ko 1308/2013 Erregelamendua (EB), nekazaritzako ekoizkinen merkatuen antolakuntza erkidea sortu zuena, eta Europako Batzordearen ekainaren 27ko 555/2008 Erregelamendua (EB) eta ondoko aldaketak, Kontseiluaren 479/2008 Erregelamendua (EB) garatzeko arauak ezarri zituztenak, laguntza programei, beste herrialde batzuekiko merkataritzari, ekoizpen ahalmenari eta ardogintzako sektoreko kontrolei dagokienez.

Esparru juridiko horretan, mahastizaintza arloko laguntza programak behar bezala kudea daitezzen, ondoko araudiak garatu dira:

– Europako Batzordearen 2016/1149 Erregelamendu Eskuordetua (EB), apirilaren 15ekoa, Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen 1308/2013 (EB) Erregelamendua osatzen duena, mahastizaintza sektoreari laguntzeko programa nazionaleri dagokienez, eta Europako Batzordearen 555/2008 Erregelamendua (EB) aldatzen duena.

– Europako Batzordearen 2016/1150 Betearazpen Erregelamendua (EB), apirilaren 15ekoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1308/2013 Erregelamendua (EB) aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena, sektoreari laguntzeko programa nazionaleri dagokienez, mahastizaintzari laguntzeko programei buruzko xedapenak arautzeko eta estatu kideek Europako Batzordeari aurkeztu behar dizkioten laguntza programei buruzko xedapenak arautzeko xedez.

Espainiako araudia Europar Batasunaren erregelamendu berri horietara moldatzeko, onetsi zen abenduaren 5eko 597/2016 Errege Dekretua, mahastizaintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko 2014-2018ko programako neurriak aplikatzekoa. Programa hori 2018ko uztailaren 31n bukatu zen, eta beste bat onetsi zen 2019-2023 aldirako.

Europako Batzordeak 2019-2023 FEAGA ekitaldiak barnean hartzen dituen bosturtekorako mahastigintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko programa berria (PASVE) onetsita, argitara eman ziren urtarrilaren 12ko 5/2018 Errege Dekretua, Espainiako mahastizaintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko 2019-2023ko programako neurriak aplikatzekoa, eta ondoren azaroaren 2ko 1363/2013 Errege Dekretua, zeinak jasotzen baititu Espainiako mahastizaintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko 2019-2023ko programako neurriak aplikatzeko programa garatzen duten xedapen multzoa eta aldakuntzak eta, bere bigarren xedapen iragankorrean, 2014-2018ko PASVEren planetatik ondoko 2019-2023 aldira igarotzeko baldintzak.

Halaber, argitara eman zen urriaren 25eko 608/2019 Errege Dekretua, zeinaren bidez azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretua aldatzen baita. Haren bigarren xedapen iragankorrean adierazten da dekretu hori ez zaiela aplikagarria izango hura indarrean jarri baino lehenago mahastiak berregituratu eta birmoldatzen laguntzeko neurrirako aurkeztutako eskaerei, horiei azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuaren 2. kapituluko bigarren atala aplikatuko baitzaie, lehen idatzita zegoen moduan. Azkenik, urtarrilaren 28ko 137/2020 Errege Dekretuak 1363/2018 EDren akatsen zuzenketa jaso du, bere amaierako bigarren xedapenean.

Bai 1363/2018 Errege Dekretuak, bai 608/2019 Errege Dekretuak, sartu dituzte Europako Batzordeak adierazi den aldian PASVE onetsitako aldakuntzetatik etorritako aldaketak.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 26ko 26/2019 Dekretuak eta gero hari egindako aldakuntzak Europako erregelamendua eta Estatuko oinarritzko araudia Euskal Autonomia Erkidegoan garatzeko eta aplikatzeko arauak ezartzen dituzte, mahastizaintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko EBren 2019-2023rako neurriei lotuta.

Aintzat harturik 2014-2018ko PASVEren planetatik orain indarrean dagoen 2019-2023 aldira igarotzeko baldintzak ezartzen dituen xedapen gehigarri bakarra, kontuan eduki behar da onetsi diren eta 2018ko uztailaren 31n amaituta ez dauden eragiketak 2019-23 FEAGA ekitaldien kargura likidatu edo ordainduko direla, 1636/2018 Errege Dekretuaren 37. artikulua jasotzen dituen zenbatekoen eta ekintzen arabera, eta errege dekretu horretan eta haren aldakuntzan xedatutako betekizun eta baldintzei jarraituz exekutatu direla.

Kontuan edukiz 1363/2018 Errege Dekretuak, 35. artikuluan, urtean urteko ekainaren 30a ezartzen duela autonomia erkidego bakoitzak dabilen finantza ekitaldiko urriaren 15era arte gastatzeko aurreikusita daukan funtsak jakinarazteko azken egun bezala, eta erakunde ordaintzaileek jakinarazi behar dituztela dabilen finantza ekitaldian 2021eko ekainaren 30aren aurreko azken asteko ostiralera arte egindako ordainketak, MAPAk autonomia erkidegoei funtsak berresleitzeari begira, horrela soberakinak 2020/2021 FEAGA ekitaldiaren kargura exekutatu ahal izan daitezen, zeina 2021eko urriaren 15ean bukatuko baita.

Kontuan edukiz EAEko erakunde ordaintzaileak astebete lehenago eskatzen duela, beharrezkoa da 2020/2021 FEAGA ekitaldian erakunde ordaintzaileari jakinarazteko epe bezala 2021eko urriaren 1a ezartzea, urriaren 15aren aurreko azken asteko ostirala baita.

Halaber, kontuan edukiz azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuak bere 39. artikuluko 1. puntuan jasotzen duela ezen, eragiketa bakoitza bukatu ondoren, onuradunak laguntza ordaintzeko eskaera edo jakinarazpen bat aurkeztu beharko duela haren autonomia erkidegoko organo eskudunean, hark zehazten duen epean, eragiketa bukatu den FEAGA ekitaldiko uztailaren 31 igaro gabe.

Helburu horrekin, eta administrazio prozedurak arrazionalizatzeko, bai herritarrei begira bai administrazioan eskuragarri dauden baliabideak behar bezala antolatzei begira, erabaki da eragiketak bukatu izanaren jakinarazpen bakar bat egitea, zeina ordaintzeko eskaera bera baita, jakinarazpena eta ordaintzeko eskaera egin ordez.

Azkenik, kontuan edukiz helburua dela Arabako Lurralde Historikoko ahalik eta eskaera gehien ahalik eta berandutze txikienaz jakinarazi ahal izatea erakunde ordaintzaileari, ordaindu dezan, eta horretarako, helburu hori lortzea ahalbideratzen duten epeak ezarri behar direla, bai eta laguntza horren erakunde kudeatzailea den Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren administrazio jarduera eta kudeaketa egokiro antolatu ere.

Ekintzak hasi ez direla egiaztatzeko landa ikustaldia nahitaezko eskakizuna da lanen hasiera baimentzeko, eskaera egin ondoren baina eskaerak onetsi baino lehenago. Ikustaldi horretarako baliabide asko behar dira, ohiko prozedurak behar dituenak baino askoz ere gehiago, berehala eta presaz egin behar delako. Hortaz, sistema bat aurreikusi behar da beharizan hori egiazkoa dela ziurtatzen duena. Beraz, ezarritako epearen lehenengo hamabost egun baliodunetan bakarrik onartuko dira.

Aurretik azaldutakoa oinarri hartuz, bat etorritik mahastizaintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko programako neurriak (2019-2023) aplikatzeko azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuan eta Eusko Jaurlaritzak otsailaren 26an onetsitako Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko mahastizaintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko EBren neurriak garatu eta aplikatzekoan, xedatutakoarekin, eta Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak esleututako eskumenez baliatuz, zeinaren bidez Nekazaritza Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi baitzen, Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 legegintzaldirako Sailak zehaztu zituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren xedatze zatiaren bederatzigarren atala aplikatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan EE 479/2008 Erregelamenduaren 11. artikuluan jasotzen diren mahastiak berregituratzeko edo birmoldatzeko neurrian laguntzak eskatzeko 2021eko deialdiaren prozedura. Hori guztia, 1363/2018 Errege Dekretuan, 608/2019 Errege Dekretuan, 137/2020 Errege Dekretuan eta Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 26ko 26/2019 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko mahastizaintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko EBren 2019-2023ko neurriak garatu eta aplikatzekoan, haren aldakuntzan eta xedapen osagarrietan ezarritako baldintza eta betebeharrekin, FEAGAtik etorritako EBren funtsen finantza esleipenaren bidez, eta laguntza eskaerak jasotzeko epe hauek ezarriz:

- 2021erako, 2020ko urriaren 19tik azaroaren 27ra bitarteko aldia, bi egun horiek barne.
- 2022rako, 2021eko urriaren 18tik azaroaren 26ra bitarteko aldia, bi egun horiek barne.
- 2023rako, 2022ko urriaren 17tik azaroaren 25era bitarteko aldia, bi egun horiek barne.

Bigarrena. 2021, 2022 eta 2023ko kanpainetako laguntza eskaeretan onetsitako eragiketen UKOA aurkezteko epe moduan, laguntza onesten duen ebazpenaren aldakuntza data baino hilabete beranduago ezartzea.

Hirugarrena. Ordaintzeko eskaerak jasotzeko ondoko epe hauek ezartzea:

– Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileari 2021eko urriaren 1a baino lehen aurkeztu behar zaizkion ordaintzeko eskaerak: 2021eko maiatzaren 10etik uztailaren 31ra bitarteko aldia, bi egun horiek barne.

– Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileari 2022ko irailaren 30a baino lehen aurkeztu behar zaizkion ordaintzeko eskaerak: 2022ko maiatzaren 9tik uztailaren 31ra bitarteko aldia, bi egun horiek barne.

– Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileari 2023ko irailaren 29a baino lehen aurkeztu behar zaizkion ordaintzeko eskaerak: 2023ko maiatzaren 8tik uztailaren 31ra bitarteko aldia.

Betiere, aurkezteko epe horien bukaeran osatu gabe edo oker dauden eskaerak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutako epe osagarria edukiko dute.

Laugarrena. Hirugarren apartatuan adierazi diren epeen barruan osatzen ez diren eskaerak, ordaindu gabe geratuko dira eskaera osatu eta hurrengo kanpainara arte, kontuan edukita PASVEn azken kanpainan (2019-2023) 2023ko urriaren 15 dela ordaintzeko azken eguna.

Bosgarrena. Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Saileko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan aurkeztuko dira (zerbitzua Ardo Etxean dago, Arabako Guardian), astelehenetik ostiralera, jendaurreko ordutegian, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritako prozedurari kalterik egin gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE